

III. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zuzendu zeure gogora gure bizitza,
fruitu on ugari eman dezagun
zure Seme maitearen izenean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Jns 3, 1-5. 10

Ninibetarrak beren bide okerretik itzuli ziren.

Jonas Profetaren liburutik

Jaunaren hitza etorri zitzaion berriro Jonasi, eta esan zion: «Jaiki zaitetz, eta zoaz Ninibe hiri haundira, eta hotsegin ezazu han, Nik esango dizudana».

Eta Jaunak agindu bezala, jaiki eta Ninibera joan zen Jonas. Ninibe, hiri haundia zen (hiru eguneko bidea zuen alderik alde). Jonas sartu zen hirian, eta egun bateko bidea eginik, honela oihu egin zuen: «Berrogei egunen buruan, Ninibe xehatua izango da!» Sinetsi zioten ninibetarrek Jaungoikoari, eta barau deia zabaldu zuten; eta denak, haundi eta txiki, zakukiz jantzi ziren.

Ikusi zuen Jaungoikoak, ninibitarrek egin zutena, eta beren bide okerretik itzultzen zirela; errukitu zitzaizen, eta ez zien egin haientzat erabakia zeukan hondamendia.

ERANTZUN SALMOA: Sal 24, 4-5. 6 eta 7cd. 8-9

R/. Erakuts niri, Jauna, zure bideak.

Erakuts niri, Jauna, zure bideak,
adierazi zure bideskak.
Eraman nazazu zure egia bidetik, eta argitu,
Zu bainzara nire Jainko salbatzaile,
Zu zaitut egun osoan nire itxaropide. R/.

Oroi zaitetz zure errukiaz, Jauna,
oroi zure maitasunaz, betidanik baitira.
Oroi zaitetz nitaz zure maitasunean,
Jauna, zure ontasunean. R/.

On eta zuzen da Jauna,
horregatik erakusten die hobendunei bidea.
Apalak zuzenbidez daramatza,
erakusten die bere bidea apalei. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 7, 29-31

Iheskorra da mundu honetako irudia.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Hara zer esaten dizuedan: «bizitza laburra da. Beraz, emaztedunak, emazterik ez balute bezala bizi bitez; negarrez daudenak, negarrez ez baleude bezala; pozik daudenak, pozik ez baleude bezala; erostunak, jabe ez balira bezala; eta mundu honetaz baliatzen direnak, baliatuko ez balira bezala. Iheskorra baita mundu honetako irudia».

EBANJELIOA: Mk 1, 14-20

Aleluia: Ik. Mk 1, 15b. d

R/. Aleluia.

V/. Hurbil da Jaungoikoaren erreinua;
sinets berri ona. R/.

Bihotz-berri zaitezte eta sinets berri ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Joan bahitu zutenean, Jesus Galileara joan zen, Jaungoikoaren berri ona hotsegitera; honela esaten zuen: «Ordua bete da, hurbil da Jaungoikoaren erreinua. Bihotz-berri zaitezte eta sinets berri ona».

Galileako itsas bazterretik igarotzean, Simon eta Andres, Simonen anaia, ikusi zituen itsasoan sareak botatzen, arrantzaleak bainziren. Jesusek esan zien: «Zatozte Nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago joanda, Zebedeoren seme Santiago eta honen anaia Joan ikusi zituen, beren itsas ontzian sare konpontzen ari zirela; eta dei egin zien.

Haiek, Zebedeo, aita, ontzian mutilekin utzi eta Harekin joan ziren.

Oparigaien gainekoa

Begi onez begira, Jauna, gure eskaintzari:
gu santu egin gaitzala eta salba.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengo

Jainko ahalguztiduna,
bizi berriaren grazia eman diguzu;
egizu, bizi berri honek beti poztu gaitzala.
Jesu Kristo.